



2020 URTEKO TXOSTENA

Memoria honetan Izarbidean elkarteak, batez ere boluntarioei esker, 2020. urtean zehar garatu dituen ekimenen narrazio kronologikoa aurkeztuko dugu.


Lehenik eta behin aipatu nahi dugu ikasturte zeharo desberdina izan dugula, Covid-19ak denon bizia aldatu du eta, nola ez, gure elkartearen jarduna ere birmoldatu beharra egon da. Horretarako, egutegia eta eguneroko ordutegiak aldatu, talde txikietan banatu eta plangintza berri bat eraiki dugu; egunpasa eta asteburuko irteerak bertan behera utzi beharra ere egon da.

Hala ere, gauza handirik egiteko aukerarik izan ez arren, alarma-egoera ezarri aurretik Bilbon antzezlan bat ikusteko aukera izan genuen, eta hori goraiatu edo nabarmendu nahi dugu. "Campeones del humor" izenburupean aniztasun funtzionala dute aktoreek, duela urte batzuk "Campeones" pelikula ere ikusi genuen eta ezin galdu berriro hain lan ona ikusteko aukera. Erabiltzaileek eta begiraleek egun paragabea igaro genuen eta antzezlanaren bukaeran aktoreekin egon eta argazkiak ateratzeko aukera ere izan genuen. Ekintza hunkigarria eta paregabea izan zen: gure txalo beroenak haientzat.

Urte hasieran Sukaldaritza-tailerra egiten hasi ginen, eta errezeta berri batzuk egiteko aukera ere izan genuen. Polikiroldegiko gimnasio eta igerilekura joaten direnean ere gustura aritzen dira; ikasturte hasieran izan zuten aukera, baina gaur egun agoera bere onera etorri arte alde batera utzi behar izan dugu ekintza hau.

Sukaldaritza tailer horrekin lotuta, aipagarria den zerbait izan dugu urtarrila-otsaila bitartean. Hainbatetan azaldu dugun legez, Izarbideanek kanpoko laguntzei esker egiten du aurrera neurri handi batean (boluntarioak eta enpresa eta instituzioen dirulaguntzak, besteak beste), baina izaera soziala duen elkarte da eta gu ere, ahal dugun neurrian, laguntza eskaintzeko prest gaude. Horren adibide da aipatutakoa. Izan ere, Foru Aldundiaren Gizarteratzeko sail batetik hala eskatuta, gure artean izan dugu birgizarteratze-aldia bete behar zuen mutil gazte bat. Egiten ari zen ikasketengatik sukaldaritzarekin lotura zenez, bere tutorearekin eta gure arduradunarekin adostu ostean, Izarbidean egon da aldi horretan gure erabiltzaileekin batera sukaldaritza-tailerrean.

Gure lokalean, *Topagunean*, hainbat arratsalde pasatu ditugu, eskulanak egin, futbolinean jolastu edota beste hainbat ekimenetan.



Zaldietara, ekinoterapia saioetara, nahi baino gutxiagotan joan izan gara. Etxealdi edo konfinamendu-sasoian ezin izan ginen joan eta maiatza amiera aldera berreskuratu genituen ekinoterapia-saioak. Zapatuero egiten den arren, 4 pertsonako talde txikiak antolatu ditugu eta, beraz, 3 asterik behin joaten da erabiltzaile bakoitza.

Azkenik, hasieran aipatu bezala, ikasturte hasieran egun pasa bat eta herriko ekintza batzuk egiteko aukera izan genuen.

Eta ezin 2020ak eskaini digunari buruz ezer gehiago esan.

Besterik gabe, murgildu zaitez gure memorian eta jakizu, existitzen diren muga bakarrak nork bere buruari jartzen dizkionak direla.

Izarbidean irabazi-asmorik gabeko elkar-
tea da. Elkar-
te hau aniztasun funtzionala
duten erabiltzaileen gurasoek sortu zu-
ten. Hain zuzen ere, Markina-Xemein eta
Etxebarriko guraso batzuek. Gaur egun,
Izarbidean taldea familiartekoez, bolunta-
rioek eta erabiltzaileek osatzen dute.

Gurasoen helburu nagusia haien seme-
alaben gizarteratzearen aldeko plana egi-
tea eta gizarte osoari, baina batez ere bi
herri horietako herritarrei, bide horretan
partaide eta laguntzaile izateko bidea
erraztu eta partaide izateko aukera ema-
tea da.

Elkar-
tea sortu ondoren, eta euren seme-
alaben premien azterketak
egin ostean, honako
hau ondorioztatu zen:
momentu horretan bi
lehentasun zeudela: alde
batetik, eguneko zentroa
sortzea eta, beste alde bate-
tik, aisialdirako talde bat eratzea
eta horretarako beharrezko az-
piegitura garatzea (lokala, bolun-
tario-sarea antolatzea...)

Izarbideanek, Markina-Xemein herrian,
eguneko zentro bat sortzea bultzatu
zuen zenbait instituziotan, esaterako,
Foru Aldundiaren Ongizate Batzordea-
ren aurrean. Eguneko zentro hori Go-
rabide elkar-
teak kudeatzen du gaur egun.

2007ko urtarrilean jarri zen martxan
Aisialdi-proiektua, Markina-Xemeingo

Udalak utzitako Topagune deitu genion lokal
batean. Izenak esaten duen moduan, helburu
nagusiena ume, gazte eta helduak elkarrekin
egoteko gune aproposa izatea da. Nabar-
mendu beharreko beste datu bat ere gehitu
nahiko genuke: Izarbidean Elkar-
tea Onura Pu-
blikoa duten elkar-
teen erroldan onartua da-
goela, 2002ko maiatzaren 7tik.



Markina-Xemein eta inguruan ez dago pertsona horien premiak betetzeko aisialdi-ekintzarik. Hori dela eta, lagun gehiagorekin elkartu eta ondo pasatzeko aukera izan dezaten aisialdi- eskeintza da ematen zaiena, beti ere, gizarteratze helburua lehenetsita. Hori guztia boluntario taldearekin eta laguntzaile kontratatu batekin garatzen da.

Bai Topagunean, bai kalean, hainbat ekintza egiten dituzte: paseoa ibili, margotu, jolastu...

Dena den, jakin badakigu hori ez dela egoera ideala, argi baitago beren dibertsitate funtzionala dela eta, lagunekin eta beren monitoreekin

baino ez izatea ez dela nahiko genukeena. Baina herriko hainbat ekintza eta ospakizunetan, zoritxarrez, gure erabiltzaile ia gehienak baztertuta gelditzen dira.

Azken urteotan, pauso handiak eta sendoak eman dira Inklusioa gauzatzeko bidean, baina bidea luzea eta neketsua da eta argi asko ikusten dugu hori gurasoek eta familiakideek ez ezik baita monitore eta laguntzaileek ere. Dena den, gure helburua betetze aldera, saiatuko gara erabiltzaileek ekintza arruntetan eta "normalizatueta" parte har dezaten, inklusioaren bidean aurrera egiteko.



Proiektu hau 17 erabiltzailerekin hasi zen, eta hilabete batzuetara 19ra handitu zen. Gaur egun 20 dira. Ia gehienak Markina-Xemeingoak dira, baina badaude inguruko beste herri batzuetakoak ere (Etxebarria).

Adinari dagokionez, proiektua adin guztietara dago zabalik. Gure erabiltzaileak, une honetan 18 eta 64 urte bitartean daude. Horregaitik, 2 taldetan banatuta daude, adinaren arabera:

Garra-garraka taldea (18-25 urte bitartekoak)

Algaraka taldea (26-64 urte bitartekoak)

Erabiltzaileek diagnostiko desberdinak dituzte. Adibidez: Autismoa, West Sindromea, Garun paralisia, Mikrozealia + Hemiplejia...

Aipatu beharra dago erabiltzaileek Izarbidean elkartera oso gustura etortzen direla, beraientzat aisialdia oso aberasgarria eta gustagarria baita. Izan ere, egunerokotasunean egiten ez dituzten hainbat ekintza egiten dituzte eta "eurena" sentitzen duten leku bihurtu dute Topagunea.

Taldeak	Garra-garraka	Algaraka	Guztira
Neskak	1	9	10
Mutilak	3	7	10



- Indarrean dagoen legearen arabera, adimen desgaitasuna onartuta izatea.
- Elkartean erroldatuta egotea.
- Elkartean dagoen bitartean zunda, injektagarri eta abarren beharrik ez edukitzea
- Norbere burua eta beste pertsonen segurtasuna arriskuan jar dezaketen jokaerarik ez izatea.
- Erabiltzailearen premiek monitore eta erabiltzailearen ratoria egokituta egon beharko dute.
- Taldearen funtzionamendura edota jarduerara egokitzea.



Izarbidean elkartearen Topagunea eta aisialdi-proiektua aurrera eramateko, ezinbestekoak dira boluntarioak. Lehenik eta behin, Izarbidean elkarteak ez duelako jende nahikorik kontratatzeko baliabide ekonomikorik, eta, bigarren, baina ez horregatik garrantzia txikiagoa duelako, BOLUNTARIOek ematen diotelako izaera eta hauspoa gure elkarteari.

Horien guztien arduraduna ere boluntarioen artetik hautatutako bat da, kontratatuta dagoena.

Boluntarioek esaten dute oso pozik eta gogotsu etortzen direla Izarbideanera, eta ikusi ere, halaxe ikusten da. Hona hemen haiek esandako esaldi batzuk: “pertsona bakoitzak bere lekua duelako eta bizitza bat dugunez, aprobetxatu egin behar dela erakusten digutelako, talde oso aberasgarria delako eta gustu handia da bertako partaide izatea”, “pozik bizitzen eta alaitasunez gozaten erakusten digutelako une askotan, eta talde-giroa ezin hobea delako”, “pertsona oso maitakorrak die, zuk emotezun gitxiaz asko jasoten dozulako eurengandik”, “Irakasle paregabeak dira, irribarrik galdu gabe bizitzan aurrera egiten erakusten digutelako”.

Boluntarioak lortzeko bidea

Prentsa: Zenbait egunkariekin harremanetan izan gara: HITZA, DEIA, CORREO. Hirurei eskatu genien titular hau erabiltzeko: “IZARBIDEAN Elkarteak boluntarioak behar ditu”.

Kartelak: Markina-Xemein, Ondarroa eta Etxebarriko kaleetan eta zenbait komertziotan kartelak jarri ditugu.

Ahoz ahoko transmisioa: hau da, boluntarioek eurek, taldeetan, institutoetan eta abar egiten dituzten komentarioetatik lortzen dugu

oihartzun handiena

Ikastetxeetan: Aukera izaten dugun bakoitzean ikastetxeetara jotzen dugu, ikasleekin solasaldi bat izan eta jolas batzuen bidez gure elkarte ondo ezagutzeko aukera paregabea da. Horrez gain, eguneroko errealitatearen beste aurpegi bat erakutsi nahi izaten diegu zentro horietako ikasleei..

Sare sozialak: Instagram eta Facebook bidez ere geure burua ezagutzera ematen ari gara, gure hainbat ekimen argitaratuta jendea elkartera erakartzea helburu hartuta.

Boluntario izateko betebeharrak

18 urte beteta izatea, eta horrelako lan batean parte hartzeko gogoia izatea. 16 urtetik aurrera era aritu daitezke boluntario lanetan, baina beti ere gurasoen baimen idatziarekin.

IZARBIDEAN elkartearekin izango dituen eskubideak eta betebeharrak azaltzen dituen dokumentu bat sinatzea.

Boluntarioei harrera

Boluntario batek izena ematen duenean, lanean hasi aurretik, haiekin biltzen da koordinatzailea. Biler horretan zera azaltzen zaio:

- Haien eskaintzara moldatzen garelako eta lana zein talderekin eta zein ordutegitan egingo duen adosten dugu.
- Lokala erakusten zaio.
- Eskubideak eta betebeharrak fitxa betetzen dute (Indarrean dagoen Boluntarioen legeari jarraituta).
- Proiektuaren nondik norakoa azaltzen zaie (txostentxo bat ematen zaie).
- Erabiltzaile bakoitzaren informazio garrantzitsua ematen zaio.

Boluntarioen zerrenda

IZENA	HERRIALDEA
Ainara Benedicto	Markina-Xemein
Amaia Markuerkiaga	Ondarroa
Amaia Zuberogoitia	Markina-Xemein
Axier Vivanco	Markina-Xemein
Nahia Eguia	Ondarroa
Garazi Espilla	Markina-Xemein
Kattalin Mendibe	Markina-Xemein
Maia Aspiazu	Markina-Xemein
Maitane Gabiola	Markina-Xemein
Miren Zuberogoitia	Markina-Xemein
Olatz Rueda	Markina-Xemein
Nerea Meabebasterretxea	Ondarroa
Teresa Pagaegi	Markina-Xemein
Andrea Pagaegi	Markina-Xemein

Formazioa

Boluntarioei lehenengo bileran Anistazun-funtzionalari buruzko dokumentu bat ematen zaie. Bertan dago azalduta nola funtzionatu behar duten erabiltzaileekin. Beste alde batetik, formazio eskubidea dutela esaten zaie.

Formazio ikastaro horiek, helburu argi bat dute: Lana ahalik eta modu eraginkorrean garatu dezaten laguntza eta aholkuak eskaintzea. Horretarako, Apnabi, Gorabide, Aspace... elkarteak gonbidatu izan ditugu, informazioa eman diezaguten. "020rako aurreikusita zegoen formazio-ikastaroa bertan behera geratu da, Covid-19aren izurriteak ezinezkoa egin duelako.



Arestian azaldu dugun moduan, elkartearen helburu nagusia erabiltzaileei haien denbora librean, aisialdian, zenbait ekintzatan parte hartzeko aukera ematea da. Horretarako, esparru desberdinetan mugitzen gara. Topagunean egiten dira ekintza gehienak, baina herriko bestelako zerbitzu eta eskaintzak ere erabiltzen ditugu eta ekintza kulturaletan parte hartzen dute. Adibidez: polikiroldegia, zeramika-tailerra, etab

Erabiltzaileen integrazioa dela eta, esan genezake talde bakoitzarekin lana egiterako orduan, alde desberdinak hartu behar direla kontuan, taldeek ezaugarri propioak dituztelako, horietako bakoitza osatzen duten erabiltzaileen ezaugarri pertsonalen araberakoak. Hori dela eta, egiten diren ekintzak edo jarduerak oso desberdinak dira talde batetik bestera. Adibidez: **Algaraka** taldea da autonomia handiena duena eta errazagoa da haiekin ekintza anitzagoak garatzea. **Garra-garraka** taldeak arazo gehiago eta anitzagoak ditu, haiek dituzten ezintasunak ere handiagoak direlako eta, ondorioz, haiekin egin daitezkeen ekintzak askoz ere baldintzatuago daude.



Ikasturte honetan antolakuntza birmoldatu beharra izan dugu. Jarraian, hilabeteka nola antolatu garen azalduko dizuegu:

Urtarrila-Martxoa

Gazteak: Garra-garraka taldea

- Ekinoterapia 16:00etatik-19:00 etara (bi larunbatetik behin)
- Igandea Topagunea 16:00etatik-19:00etara.

Nagusiak: Algaraka taldea

- Astelehena 18:00etatik-20:00etara Topagunea
- Asteartea 18:00etatik-20:00etara Zeramika-tailerra
- Asteazkena 18:00etatik-20:00etara sukaldaritza Topagunean
- Ostegunetan 11:00etatik-13:00etara paseo herrian zehar
- Ostiraletan 17:00-19.00etara Topagunea
- Ostiraletan beste ekintza batzuk; igerilekua edo gimnasioa 18:00etatik-20:00etara. 2 taldetan banatzen gara: hilean ostiral bitan batzuk igerilekura eta beste bi ostiraletan gimnasioa.
- Larunbatetan Ekinoterapia 16:00etatik-19:00etara. Taldea zatitu egiten da: *Garra-garrakoekin* elkarbanatzen dute ekintza, talde horretan erabiltzaile gutxiago dagoelako.

Martxoa-Maiatza

Martxoaren erdi aldera alarma egoera ezarri zen eta ondorioz elkarte itxi eta antolatutako ekintza guztiak bertan behera utzi behar izan genituen. Hilabete gogorrak izan ziren erabiltzaileentzako, lanik gabe, eguneko zentrorik gabe eta baita aisialdirik gabe geratu baitziren.

Ekaina-Abendua

Ekainean deseskaladaren azken fasearekin batera aisialdia berriz martxan jartzen hasi ginen, egoera berrira moldatu eta talde txikietan banatu genituen erabiltzaileak. Talde bakoitzean 2 erabiltzaile izaten dira eta 2 orduko paseoa edo Topagunea izaten dute astean birritan.

Beraz, arratsalde gehienak kalean paseoan edo ibilbide desberdinak egiten igarozen ditugu eta Topagunea eguraldi txarra dagoenean erabiltzen dugu. Aipatu nahi dugu Topagunean ere Osasun Sailak ezarritako neurri guztiak hartzen ditugula kontuan eta protokoloa ezarrita dugula, distantziak, garbiketak etab. Errespetatuz.

Horrez gain, jolas berriak ere erosi ditugu ahal den neurrian kutsatze-arriskuak ekiditeko: erraz garbitzekoak eta haien beharretara moldatutakoak dira eta erabili ostean garbitu egiten dira banan-banan.

Honako hau da erabiltzaileen ordutegi berria:

- Astelehena, 16:00-18:00 eta 18:00-20:00 Topagunea edo Paseoa.
- Asteartea, 16:00-18:00 Topagunea edo Paseoa eta 18:00etatik-20:00etara Zeramika- tailerra. (Zeramika-tailer horretan ez dute erabiltzaile guztiek parte-hartzen. Kanpoko irakasle batekin adostutako ekintza da eta joaten direnen familia bakoitzak ordaintzen du dagokiona).
- Asteazkena, 16:00-18:00 eta 18:00-20:00 Topagunea edo Paseoa.
- Osteguna, 16:00-18:00 eta 18:00-20:00 Topagunea edo Paseoa.
- Ostirala, 17:00-19.00 Topagunea edo Paseoa
- Larunbatetan, Ekinoterapia 16:00etatik-19:00etara. Taldea zatitu egiten da: 4 pertsonak osatutako "talde burbujak" sortu ditugu eta *Algaraka* eta *Garra-garrakakoak* joaten dira.

IZARBIDEAN elkarteak abian jarritako aisialdirako proiektu hau jada nahikoa sendotuta dago gizartearen onarpenari dagokionez. Hala ere, boluntarioak egon badauden arren, beti ari gara gehiagoren bila eta ondo zaindu beharreko kontua dela deritzogu, haiek baitira Izarbideanen euskarri nagusia.

2019tik 2020 urtera baja batzuk izan ditugu, aurrera jarraitu ahal izan dugun arren. Begirale berrien beharra dugu; hori dela eta, aurten ere Markina-Xemeingo Lea Artibai ikastetxera joko dugu hitzaldi bat eman eta horrela ea gazteak animatu eta gure elkartearen parte izatera animatzen diren. Ondarruko institutuarekin ere konfinamendu aurretik hitzartuta geneukan hitzaldi bat Erizaintza Modulukoekin, baina bertan behera geratu zen eta saiatuk ogara aurten berriro lotzen.

Horrez gain, praktikak burutzeko aukera ematen dugu; zein euren ikasketetarako kredituak lortzeko, zein monitoretza titulua atera behar dutenentzako zabalik ditugu atak.

Erabiltzaileak direla eta, lehenago ere aipatu den arren, garrantzitsua da nabarmentzea orain dela 5 urte hartutako erabakia: hiru taldetan banatuta zeuden, baina gazte eta nagusien arteko adin-tartea mantentzen den arren, gazteak ere nagusitu egin dira eta ekintzak elkarbanatzen dituzte ehuneko ehunean, horregatik daude orain bi azpitaldetan banatuta.

Talde bakoitzarekin burututako integrazio-lana erabiltzaile bakoitzaren desgaitasunaren arabera da gehien bat, horietako bakoitzak bere ezaugarriak dituelako eta erabat baldintzatzen duelako zer egin daitekeen eta zer ez.

Erabiltzaileen integrazioa hobetzeko, ekintzak hainbat leku eta esparrutan egin dira. Topagunea erabiltzen da ekintza gehienak burutzeko, baina bestelako eskaintzak ere erabiltzen dira. Egungo egoerarekin guztia bertan behera utzita dagoen arren, ez dugu galtzen luze gabe normaltasuna berreskuratzeko gogoia.



EGUN PASA:

Otsailak 9, Antzezlan Bilbon:

Hasieran aipatu dugun bezala "Campeones del humor" antzezlan ikusteko aukera izan genuen Otsailean, lan paregabea eta benetan txalotzekoa. Guztioi erakutsi zigun ez dagoela oztoporik edo dibertsitaterik nahi duenak gustuko duen hori egiteko, gogoia da behar den gauza bakarra.

Egun paregabea pasatu genuen, eta barre-algara dezente entzun eta ikusi genuen gure erabiltzaileen aurpegietan. Aktoreekin egon ginen berbetan eta haiekin argazkia ere atera genuen. Horrelako antzezlan gehiago behar dira gaur egun!



BESTELAKO EKINTZAK:Otsailak 5, Santa Ageda:

Aurten hirugarren aldiz Markina-Xemeingo beste elkarte batzuekin bat eginda atera ginen kantuan. XAT, Guraso Elkarte eta Izarbidean atera ginen elkarrekin. Hainbat boluntario eta hainbat guraso ere hurreratu zitzaizkigun eta hotzari kantuz aurre egin genion. Denon artean asmaturiko bertso pare bat ikasi eta bertsolari birekin ibili ginen herria eta herritarrek alaitzen.

Hotz handia egiten zuen arren, gu urteroko ilusio berberarekin atera ginen kantura. Aurten posible izango ez den arren, datorren urtean gogotsu eta ohitura zaharrak bizirik mantentzeko asmotan aterako gara kalera, herritarrekin batera.

Otsailaren 8an, Gozogintza-postua:

Urtero bezela, merkatarik elkarrekin antolatzen duen azokan Izarbideanek bere postua jarri zuen. Urtean zehar sukaldaritza tailerrean ikasitako gozoak egin zituzten bertan saltzeko. Beste zenbaitetik etxean eginda ere ekarri zituzten. Postua orain dela sei urte jarri genuen lehenengoz, baina herritarren artean erreferentzia bihurtu dela esan genezake, egiten den guztia saltzen baita. Aukera izaten jarraitzen dugun bitartean, eta egoera hobetzen denean, ekimenarekin aurrera jarraitzea da gure asmoa.



Webgune eta sare sozialak:www.izarbidean.org

Facebook-Izarbidean

Instagram-Izarbidean

2010ko uztailean jarri genuen martxan gure webgunea. Zenbait helburu ditu webgune honek, baina denen artean garrantzitsuenak da erabiltzaile, haien familietako partaide eta, oro har, herrikoei, ingurukoei eta gutaz zerbait jakiteko gogoia duten guztiei informazioa helaraztea.

Bizi garen garaia kontutan hartuta, hausnarketa bat egin eta Interneten presentzia izatea ezinbestekoa dela ohartuta, gure Berri emateko ahalegina egin behar genuela erabaki genuen.

Horregatik, webguneaz gain, Facebook eta Instagram sare sozialetan ere profilak sortu ditugu; izan ere, zenbait erabiltzailek profil propioak dituzte sare horietan eta Izarbideanek ere berea izateko eskaera egin zuten.

Teknologia berrietan egin dugun murgilketaren inguruan balorazioa oso positiboa da; izan ere, erabiltzaileek bereziki estimatzen dute haien berri ematea eta gustuko dute irudi eta testu horietako protagonista izatea. Gainera, jendeari elkartean berri emateko bide arina eta zuzena da.



www.izarbidean.org

Laguntzaileak:

Markina-Xemeingo Udala

Etxebarriako Udala

Ziortza Bolibarko Udala

Bizkaiko Foru Aldundia

Laboral Kutxa

La Caixa

Cikautxo

Eika

Kide

Lagun Aro

Fagor Arrasate S.Coop.

